# GOBERNU BILERA
Prentsa-Txostena
Erabaki nagusiak

# CONSEJO DE GOBIERNO
Dossier de Prensa
Acuerdos destacados

**Vitoria-Gasteiz, 2021ko uztailak 13**

**Vitoria-Gasteiz, 13 de julio de 2021**

Navarra, 2 – 01007 VITORIA-GASTEIZ
Tef. 945 017 972 – e-mail: prentsa@euskadi.eus

**Lana eta Enplegua**

## GIZARTE-EKONOMIARAKO LAGUNTZAK

Gobernu Kontseiluak 110.000 euroko laguntza agindu bat onartu du gaur, alde batetik, Gizarte Ekonomiako enpresen kudeaketan eta organoetan langileen parte-hartzea erraztu eta hobetuko duten tresnen garapena eta ezarpena finantzatzeko. Gizarte-ekonomiakoak ez diren enpresen kasuan, laguntzak baliagarriak izango dira langileek parte hartzeko plan bat egiteko eta ezartzeko, langileek enpresan parte hartzeko ereduak definitzeko tresnak diseinatzeko eta enpresa partaidetuen eredua zabaltzeko.

Halaber, 140.000 euroko beste partida bat onartu da, Gizarte Ekonomian enpresen arteko lankidetzarako laguntzak emateko.

**Ekonomiaren Garapena, Jasangarritasuna eta Ingurumena**

## 240.000 EURO BAINO GEHIAGO NEKAZARITZAREN SEKTOREKO PROFESIONALEN ETA ENPRESARIEN ELKARTEENTZAT

- **Elkarrizketa sozialeko funtzioak garatzeko eta orientazioko eta aholkularitzako jarduera sindikalei eusteko**

Nekazaritzaren sektoreko profesional eta enpresarien elkarte eta federazioetarako laguntzak arautzeko Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburu Arantxa Tapiak emandako Agindua onartu du Eusko Jaurlaritzak. Itzuli beharreko dirulaguntzatzat joko dira laguntzak, eta guztira 241.000 euro erabiliko dira horretarako.

Laguntzen helburua da Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio Orokorrarekiko elkarrizketa sozialeko funtzioak garatzen laguntzea, euskal nekazaritzaren sektoreari buruzko gaietan, eta nekazaritzaren sektorerako oro har eta bere afiliatuentzat bereziki egiten dituzten orientazioko eta aholkularitzako jarduera sindikalei eustea.

Diruz lagundu daitezkeen kostutzat hartuko dira jarduera hauek egitean sortutako gastuak:

- Jarduera sindikaletarako erabiltzen diren lokalak mantentzea.
- Zeregin sindikaletan diharduten langileak izateko egiten diren lan kontratuei eustea.
- Nekazaritzaren sektoreko profesionalen aholkularitza eta informazio sindikala eman behar duten langileekin lan kontratu berriak formalizatzea.
- Gastu arruntak, ez inbertsiokoak.

Onuradunak izan ahal izango dira Nekazaritzako Profesionalen Elkarte sindikalak, hau da, Legeak ezarritako betekizunak bete eta Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritzaren sektorearen interes orokorrak ordezkatzea eta defendatzea helburu duten eta nekazaritzako profesionalek osatzen dituzten nekazaritzako erakunde profesionalak, bereizi gabe beren kideek nekazaritza ekoizpeneko zer azpisektoretan diharduten.

Eskaerak aurkezteko epea hilabete batekoa izango da, Agindu hau EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik hasita. Nekazaritza eta Abeltzaintza zuzendariari zuzenduko zaizkio, eta bide elektronikotik aurkeztuko dira.

**Ekonomia eta Ogasuna**

## EUSTATEN ETA INEREN ARTEKO HITZARMENA, EUSKADIKO IKASTETXE PRIBATUEN FINANTZAKETARI ETA GASTUEI BURUZKO IKERKETA PARTEKATZEKO

Gaur, asteartea, Gobernu Kontseiluak onartu du lankidetza-hitzarmen bat sinatzea Euskal Estatistika Erakundearen (EUSTAT) eta Estatistikako Institutu Nazionalaren (EIN) artean, Euskal Autonomia Erkidegoko irakaskuntza pribatuan, 2020-2021 ikasturtean, izandako finantziazioari eta gastuei buruzko inkesta bat egiteko.

Aurretik ere, 2014-2015 ikasturtean, horrelako hitzarmen batetik eratorritako estatistika-eragiketa bat egin zen, Estatuak eta Eusko Jaurlaritzak interes komuna baitzuten hezkuntza-arloko errealitate horri buruzko ikerketari ekiteko.

Horrela, ikerketa bakarra planteatzen da, estatistika-planetan aurreikusitako helburuak betetzeko behar den informazioa lortuta, estatistika-eragiketan bikoiztasunak saihesteko eta, era berean, baliabide publikoak aurrezteko.

Informazioa jasotzeko metodoa kanal anitzekoa izango da: unitate informatzaileek, beraiek, Eustaten webgunearen bidez emango dutena; telefono bidezko bilketa, aurrez aurreko bisita eta paper-formatuaren bidezkoa, ikastetxeak hala eskatuz gero. Informazio-bilketa administrazio-jatorriko informazioaren erabilerarekin osatu ahal izango da.

**Hezkuntza**

## HEZKUNTZA SAILAK 60 MILIOI EURO BIDERATUKO DITU UNIBERTSITATEZ KANPOKO IKASLEEI ZUZENDURIKO BEKETARAKO

- **%5eko kenkaria aurreikusten da, Covid-19ren eraginez egoera ekonomiko larrian izan diren familientzat**
- **Baldintzak betetzen dituen familia orok laguntza jasoko duela bermatzen du Hezkuntza Sailak**

Gobernu Kontseiluak gaurko bileran onartu du, Hezkuntza sailburuaren proposamenez, 2021-2022 ikasturtean unibertsitatez kanpoko mailetako ikasleak eskolatzeko beka eta dirulaguntzak deitzen dituen Agindua. Deialdiak 60 milioi euroko zenbatekoa du orotara.

Ikasturte honetan, ihazko bezala, kenkari bat aurreikusten du deialdiak, Covid-19k eragindako osasun-krisiaren ondorioz, egoera ekonomikoa larriki kaltetu zaien familientzat.

Familia horiek, zenbatutako errenta osoari %5eko kenkaria aplikatzeko eskubidea izango dute. Horretarako, egiaztatu beharko da bizikidetza-unitatearen sostengatzaile ekonomiko nagusi direnek Covid-19ren eragina pairatu dutela lan-arloan, eta justifikatu beharko da alarma-egoera indarrean izan zen garaian langabezian, aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteetan, enplegu-erregulazioko espedienteetan edo jarduera-etenean izan direla (autonomoen kasuan azken hau), gutxienez 3 hilabetez (alarma-egoeraren iraupen bera edo handiagoa), eta diru-sarrerak murriztu direla familia-unitatean.

**Beka osagaiak**

2020-2021 ikasturterako deialdi honek, honako ikasketa maila hauetarako beka eta dirulaguntzak hartzen ditu bere baitan:

- Batetik, Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Musikako eta Dantzako oinarrizko irakaskuntzak burutzen ari diren ikasleak eskolatzeko bekak eta laguntzak.

Aipaturiko maila horietako ikasleei zuzenduriko bekek honako osagai hauetako bat edo zenbait har ditzakete beren baitan: kuota osagaia; ikasmaterialetarako osagaia; eta jantokiaren osagaia.

- Bestetik, derrigorrezko hezkuntzaren ondoren egiten diren unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzatarako ere deitzen dira beka eta laguntzak. Hauen artean daude: Batxilergoa; Lanbide Heziketako zikloak; Arte plastikoak eta diseinua (Heziketa-zikloak); Musikako eta Dantzako irakaskuntza profesionalak; Kirol-irakaskuntzak; Hezkuntza administrazioaren titulartasuneko eskola ofizialetan egiten diren hizkuntza-irakaskuntzak.

Ikasketa maila hauetako ikasleek eskatu ahal izango dituzten bekek osagai hauek dituzte: Eskatzailearen errentari lotutako zenbateko finkoko osagaia; Eskatzaileak ikasturtean duen bizilekuari lotutako zenbateko finkoko osagaia; Oinarrizko bekaren osagaia; Errendimendu akademikoan izandako bikaintasunari lotutako zenbateko finkoko osagaia; eta Zenbateko osagarriaren osagaia.

Hezkuntza Sailak bermatzen du baldintzak betetzen dituen familia orok jasoko duela laguntza ekonomikoa. Horretarako, deialdi honen diru-kopurua (60 milioi eurokoa) handitu egin daiteke, beharrezko gertatuko balitz. Era honetan, ikasle guztiek hezkuntzarako eskubidean aukera berberak izatea eta familiaren egoera ekonomikoa zailtasun gehigarri bat ez izatea ere bermatzen da.

**178.000 laguntza**

Joan zen 2020-2021 ikasturtean, 116.000 ikaslek jaso zituzten unibertsitateaz kanpoko hezkuntza-mailetarako bekak Euskadin, eta 178.000 laguntza eman ziren guztira (beka osagaiak aintzat hartuta).

Aurreko ikasturtean beka eskatu zuten ikasleei dagoeneko betetako eskaera-inprimakia emango zaie. Eskabideak aurkezteko epea aurreratu egin da; agindua EHAAn argitaratu eta biharamunean hasiko da eta 2021eko irailean 30ean bukatuko da. Hezkuntza Sailaren helburua da azaroaren hasieran eskaerak ebaztea eta familiek dagokien laguntza ahalik eta lasterren jaso ahal izatea.

**Hezkuntza**

## GASTEIZKO SALBURUA BHIKO OBREN LIZITAZIOA ONARTU DA

- **18,7 milioi euroko aurrekontua du, Euskadin hezkuntza-azpiegitura bat eraikitzeko egindako inbertsiorik handiena**

Hezkuntza sailburuak proposatuta, gaurko Gobernu Kontseiluak Gasteizko Salburua BHIko obren lizitazioa onartu du.

Guztira 18.794.684,25 euroko aurrekontuarekin – Euskadin hezkuntza-azpiegitura bat eraikitzeko egin den inbertsiorik handiena –, etorkizuneko ikastetxeak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 7 lerro eta Batxilergoko 4 lerro hartuko ditu.

Eraikina egingo den lurzatiak 19.985 m2-ko azalera du, eta 5.520 m2 eraikina okupatzeko erabiliko dira. Azalera horren gainean, 3 solairuko eraikina egingo da, guztira 11.822 m2 takoa.

Eraikinaren barruan, 36 gela, teknologiako 3 tailer, informatikako 3 gela, 3 laborategi, plastikako 2 gela, marrazketa-gela bat, liburutegi bat, gimnasio bat, erabilera anitzeko 2 gela edo praktika-gela bat egongo dira, besteak beste.

Halaber, institutu berriak 1.010 m2-ko pista estalia, 1.161 m2-ko atari estalia eta 1.800m2-ko kanpoko kirol-pista izango ditu.

**Kultura eta Hizkuntza Politika**

## EUSKO JAURLARITZAK 400.000 EUROKO DIRU-LAGUNTZA ZUZENA EMAN DIO "ZINEMAZALE BERRIAK" EKIMENARI

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren ekimenez, Gobernu Kontseiluak gaur goizean onartu du Euskadiko Zinema Aretoen Elkarteari (EZAE) 400.000 euroko zuzeneko diru-laguntza ematea, "Zinemazale Berriak" programa abian jarri eta garatzeko; "Zinemazale Berriak" ekimenak haurrentzako euskarazko zinema eskainiko du 12 astez, igande goizetan, ikusleak zinema-aretoetara joatea sustatu, zine-aretoek espazio seguru gisa duten balioa indartuz eta, aldi berean, publiko berrien sorkuntza eta fidelizazioa bultzatzeko helburuarekin.

2020ko martxoaz geroztik, hilabete hauetan guztietan COVID19aren pandemiak eragin duen gizarte-larrialdiko egoeran zinema-aretoetako asistentzia % 66 murriztu da, 2019ko datuekin alderatuta, eta horrek galera ekonomiko larriak ekarri ditu.

**Trabajo y Empleo**

## AYUDAS PARA LA ECONOMÍA SOCIAL

El Consejo de Gobierno ha aprobado hoy una orden de ayudas dotada con 110.000 euros que servirá, por un lado, para financiar el desarrollo e implantación de herramientas que faciliten y mejoren la participación de las personas trabajadoras en la gestión y en los órganos de las empresas de Economía Social. En el caso de las empresas que no son de Economía Social, las ayudas servirán para financiar la elaboración e implantación de un plan de participación de personas trabajadoras, para diseñar herramientas para definir modelos para la participación de los y las trabajadoras en la empresa, y para la difusión del modelo de empresas participada.

Asimismo, se ha aprobado otra partida de 140.000 euros para conceder ayudas para la intercooperación empresarial en la Economía Social.

**Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente**

## MÁS DE 240.000 EUROS PARA ASOCIACIONES PROFESIONALES Y EMPRESARIALES DEL SECTOR AGRARIO

- **Para el desarrollo de funciones de interlocución social y para mantener sus actividades sindicales de orientación y asesoramiento**

El Gobierno Vasco ha aprobado la orden de la Consejera de Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente, Arantxa Tapia, por la que se regulan las ayudas a las asociaciones y federaciones profesionales y empresariales del sector agrario. Las ayudas que se concedan tendrán la consideración de subvenciones no reintegrables y cuentan con un montante global de 241.000 euros.

El objetivo es contribuir al desarrollo, durante el año 2021, de las funciones de interlocución social con la Administración General de la Comunidad Autónoma en materias referentes al sector agrario vasco y para mantener sus actividades sindicales de orientación y asesoramiento al sector agrario en general y a sus afiliados en particular.

Serán considerados costes subvencionables los gastos incurridos en la realización de las actividades tales como:

- Mantenimiento de los locales destinados a sus actividades sindicales.
- Mantenimiento de los contratos laborales para disponer de personal dedicado a las tareas sindicales.
- Formalización de nuevos contratos laborales con personal que ha de dedicarse al asesoramiento e información sindical de los profesionales del sector agrario.
- Gastos corrientes, no de inversión.

Podrán resultar beneficiarias las Organizaciones Profesionales Agrarias de carácter sindical entendiendo como tales, aquellas que, cumpliendo los requisitos dispuestos la Ley, tengan por objeto la representación y defensa de los intereses generales del sector agrario de la Comunidad Autónoma del País Vasco y estén integradas por profesionales de la agricultura, sin diferenciación por razón del subsector de la producción agraria a que estuvieren dedicados.

El plazo de presentación de las solicitudes será de un mes a contar desde el día siguiente al de la publicación de la Orden en el BOPV. Estarán dirigidas al Director de Agricultura y Ganadería, y se presentarán de forma electrónica.

**Economía y Hacienda**

## CONVENIO ENTRE EUSTAT Y EL INE PARA COMPARTIR UNA INVESTIGACIÓN SOBRE LA FINANCIACIÓN Y GASTOS DE LOS CENTROS DOCENTES PRIVADOS EN EUSKADI

El Consejo de Gobierno de hoy martes ha aprobado la firma de un convenio de colaboración entre el Instituto Vasco de Estadística (EUSTAT) y el Instituto Nacional de Estadística (INE) para la realización de una encuesta sobre la financiación y gastos de la enseñanza privada en este curso 2020-2021 en la Comunidad Autónoma de Euskadi.

Con anterioridad, en el curso 2014-2015 se llevó a cabo una operación estadística derivada de un convenio similar, dado el interés común del Estado y el Gobierno Vasco por abordar la investigación sobre esta realidad en el ámbito educativo.

Se plantea así una única investigación de forma que, obteniéndose la información necesaria para cubrir los objetivos previstos en los respectivos planes estadísticos, se eviten duplicidades en la operación estadística y propicien, asimismo, ahorro de recursos públicos.

El método de recogida de la información será multicanal, incluyendo tanto la autocumplimentación por parte de las unidades informantes a través de la web de Eustat, la cuestación telefónica, visita personal y el formato papel, si así lo solicita el centro educativo. La recogida de información podrá complementarse con el uso de información de origen administrativo.

**Educación**

**EL DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN DESTINA 60 MILLONES DE EUROS PARA BECAS DEL ALUMNADO DE NIVELES NO UNIVERSITARIOS**

- **Contempla una deducción del 5% para las familias cuya situación económica se haya visto afectada por la Covid-19**
- **El Departamento de Educación garantiza que obtendrán ayuda económica todas las familias que cumplan los requisitos**

El Consejo de Gobierno ha aprobado en su reunión de hoy, a propuesta del consejero de Educación, la Orden por la que se convocan becas y ayudas al estudio para la escolarización de estudiantes de niveles no universitarios para el curso académico 2021-2022.

Con un importe global de 60 millones de euros, esta convocatoria para el curso 2021-2022, este curso, como el anterior, se contempla una deducción a las familias cuya situación económica se haya visto gravemente afectada por la crisis sanitaria ocasionada por la Covid-19.

Estas familias tendrán derecho a la aplicación de una deducción del 5% sobre la renta total computada. Para ello, se deberá acreditar que las personas sustentadoras económicas principales de la unidad convivencial se han visto afectadas laboralmente por la Covid-19, y justificar que durante el estado de alarma han estado en paro, ERTE, ERE o con cierre de actividad en el caso de las personas autónomas, durante un mínimo de 3 meses (duración igual o superior al estado de alarma), y se ha producido una disminución de ingresos en la unidad familiar.

**Componentes de beca**

La convocatoria para este curso 2020-2021 incluye becas y ayudas para los siguientes niveles educativos:

- Por una parte, becas y ayudas al estudio para la escolarización de estudiantes de niveles de Educación Infantil, Educación Primaria, Educación Secundaria Obligatoria, y Enseñanzas elementales de Música y Danza.

Las becas dirigidas al alumnado de los citados niveles de escolarización pueden comprender uno o varios de los siguientes componentes: componente de cuota; de material escolar; y de comedor.

- Por otra parte, también se convocan becas y ayudas al estudio para la escolarización de estudiantes de niveles de Enseñanzas Postobligatorias no universitarias. Entre éstas se encuentran las siguientes enseñanzas: Bachillerato; Ciclos de Formación Profesional; Artes plásticas y diseño (Ciclos Formativos); Enseñanzas profesionales de música y danza; Enseñanzas

deportiva; Enseñanzas de idiomas en escuelas oficiales de titularidad de la administración educativa.

Los componentes de beca que podrá solicitar el alumnado de estas enseñanzas postobligatorias son las siguientes: Componente de cuantía fija ligada a la renta del solicitante; Componente de cuantía fija ligada a la residencia del solicitante durante el curso; Componente de beca básica; Componente de cuantía fija ligada a la excelencia en el rendimiento académico; y Componente de cuantía complementaria.

El Departamento de Educación garantiza que obtendrán la ayuda económica todas las familias que cumplan los requisitos. Para ello, el importe de esta convocatoria (60 millones de euros) podría ser incrementado en el caso de que fuera necesario, garantizando de esta manera la igualdad de oportunidades de todo el alumnado en el acceso a la educación, sin que la situación económica familiar constituya una dificultad añadida.

**178.000 ayudas concedidas**

Un total de 116.000 alumnos y alumnas fueron beneficiarias de estas becas para los niveles educativos no universitarios el pasado curso 2010-2021, con un total de 178.000 ayudas concedidas (en diversos componentes de beca).

Al alumnado que ya solicitó beca el curso pasado se le facilitará el formulario ya cumplimentado. Se ha adelantado el plazo de presentación de solicitudes; será desde del día siguiente de la publicación de la Orden en el BOPV, y hasta el 30 de septiembre de 2021. El objetivo del Departamento de Educación es que a comienzos de noviembre se resuelvan las solicitudes y las familias puedan recibir la ayuda que les corresponde a la mayor brevedad posible.

**Educación**

## LICITACIÓN DE LAS OBRAS DEL IES SALBURUA DE VITORIA-GASTEIZ

- **Cuenta con un presupuesto de 18,7 millones de euros, la mayor inversión realizada en Euskadi para la construcción de una infraestructura educativa**

El Consejo de Gobierno ha aprobado en su reunión de hoy, a propuesta del consejero de Educación, la aprobación de la licitación de las obras del IES Salburua BHI de Vitoria-Gasteiz.

Con un presupuesto total de 18.794.684,25 euros –la mayor inversión realizada en Euskadi para la construcción de una infraestructura educativa-, el futuro centro acogerá un total de 7 líneas de Educación Secundaria Obligatoria, además de 4 líneas de Bachillerato.

La parcela en la que se llevará a cabo la construcción, tiene una superficie de 19.985 m2, de la que 5.520 m2 irán destinados a la ocupación del edificio. Sobre la citada superficie, se elevará el edificio de 3 plantas, con un total de 11.822 m2 construidos.

En su interior, el edificio albergará un total de 36 aulas, 3 talleres de tecnología, 3 aulas de informática, 3 laboratorios, 2 aulas de plástica, 1 aula de dibujo, 1 biblioteca, 1 gimnasio, 2 aulas de usos múltiples o 1 aula de prácticas, entre otros elementos.

Asimismo, el nuevo instituto contará con una pista cubierta de 1.010 m2, un porche cubierto de 1.161 m2 y una pista deportiva externa de 1.800m2.

**Cultura y Política Lingüística**

## EL GOBIERNO VASCO CONCEDE UNA SUBVENCIÓN DIRECTA DE 400.000 EUROS A LA INICIATIVA "ZINEMAZALE BERRIAK"

A iniciativa del Departamento de Cultura y Política Lingüística el Consejo de Gobierno de esta mañana ha aprobado la concesión de una subvención directa de 400.000 euros a la Asociación de Salas de Exhibición Cinematográfica de Euskadi – Euskadiko Zine Aretoen Elkartea [EZAE] para la puesta en marcha y desarrollo del programa "Zinemazale Berriak" que durante 12 semanas, los domingos por la mañana, ofrece cine infantil en euskera, fomentando la asistencia de espectadores a las salas de cine, potenciando el valor de las salas de cine como espacio seguro y promoviendo al mismo tiempo la creación y fidelización de nuevos públicos.

La situación de emergencia social que ha provocado la pandemia del COVID19 a lo largo de todos estos meses, desde marzo de 2020, ha generado que la asistencia a las salas de cine durante todo ese periodo se haya reducido en un 66% en comparación con los datos de 2019, con las consiguientes pérdidas económicas.